



DERIOKO UDALA

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA ARKITEKTO AHOULKULARIAREN ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO.

I.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

I.1. Plegu honen xedea da Preskripzio teknikoen pleguaren 1 zenbakiko baldintzan deskribatutako zerbitzuak kontratatzea, dagozkion ezaugarriekin.

Zerbitzu eta aholkularitza kontratuak hornitu egiten dute administrazioaren bitarteko eza eta/edo bitarteko nahikorik ez izatea, baldin eta lan bat egiteko neurriak eta bitartekoak handitzea komenigarria eta egokia ez bada; orobat, horrela jokatzeko da udal plantillan goi mailako arkitektoen zereginei ekiteko langilerik ez badago, eta beraz, kasu horietan guztietan kontratazio mota hori egin behar da aipatu administrazio beharrei erantzuteko.

I.2. Zerbitzuak plegu honetan eta Preskripzio teknikoen pleguan jasotako baldintzekin bat etorritik emango dira.


I.3. Kontratuak administrazio izaera du, eta plegu honek eta honako hauek arautuko dute: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua (aurrerantzean SPKLTB), Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.

I.4. Kontratu hau SPKLTBren 138. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozedura irekiaren bidez esleituko da. Hau da zerbitzu publiko horri dagokion kodifikazioa, CPV kontratu publikoen hiztegi erkideari dagokionez (Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 Erregelamenduak (EB) onetsita; horren bidez aldatu egiten da CPV kontratu publikoen hiztegi erkidea onesten duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 zenbakiko Erregelamendua (EB): **CPV-7120000-0 kodea CPA kodea.-**

II. AURREKONTUA, KREDITUA IZATEA, ZERGAK ETA PREZIOAK BERRIKUSTEA.

II.1. Preskripzio teknikoko pleguko I. baldintzako A) eta D) atalek aipatzen dituzten zerbitzuen kasuan, 26.800 euroko (BEZik gabe) aurrekontu muga ezarri da lehen ekitaldirako. Bestalde, Preskripzio teknikoen pleguko I. baldintzako E) atalean jasotako eta kontrata daitezkeen zerbitzuen kasuan, zenbatekoa 12100.2279900 partidan unean-unean eskuragarri dagoen esleipenak baldintzatuko du beti. Atal honetako prezioa zehazteko sistema esleipendunak eskainitakoa izango da, EHAE Oren erreferentziako baremoak gogoan izanik.

Beharrezkoa denean, esleipena gauzatzeko baldintza izango da kontratutik sortutako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.



DERIOKO UDALA

II.2. Lehenbizi aipatu diren zerbitzuei dagokienez, indarrean den udal aurrekontuko 43200.2270700 gastu partidan ageri da kontratu hau betetzetik sortutako betebeharrak ekonomikoen aurrekontu aplikazioa, baita hurrengo ekitaldietarako behar den esleipena formalizatzeko konpromisoa ere.

II.4. Kontratuaren prezioa berrikusi ahal izango da, SPKLTBren 89. artikuluan eta hurrengoetan araututakoarekin bat etorriz. Berrikustea badagokio, berrikuspen horiek egin beharreko lanaren balorazioa aldatuko dute, hau da, handitu edo murriztu egingo dute.

Urte sari bakoitzaren zenbatekoa (hala badagokio, luzapenak ere sartuko dira) eguneratu egingo da, arkitekto aholkularien erreferentziazko ordainsariekin ezartzen dituzten gutxienezko zenbatekoen aldaketaren arabera, emandako zerbitzuei dagokienez. Ordainsari edo tarifa eta baremo orientagarriak onesten ez badira, indarrean diren azkenak ezarritako KPIa aplikatuta eguneratuko dira, eta urtero egingo da kontratua formalizatzen denetik aurrera.

II.5. Kontratua exekuzioa hasi aurreko ekitaldian formalizatzen bada, kontratuaren esleipena dagokion ekitaldian kontratutik sortutako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen menpe geratuko da.

II.6. Udalak hitzematen du zenbateko beharrezkoak esleituko dituela udal aurrekontuetan, kontratua indarrean den bitartean sortzen diren betebeharrak aurre egiteko asmoz.

Kontratua exekutzeko epea 4 urtekoa izango da, kontratua izenpetzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Aurreikusi da 2 urteko luzapena egitea, baina kontratuak, gehienez, 6 urte iraungo du, luzapenak barne.


II.7 Ordainketa hileroko egingo da, eta aurretik dagokion faktura aurkeztuko da; fakturak bete beharko ditu Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen araudian ezarritako betekizunak.

III. ENPRESA PROPOSATZAILEAK, DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZAK.

III.1. Enpresa lizitatzailerak.-

Kontratua egiteko ahalmena dute jarduteko erabateko gaitasuna duten, SPKLTBren 60. artikuluan aipatutako kontratatze debekuen egoeran ez dauden eta aipatu xedapeneko 74 eta 78 bitarteko artikuluetan ezarritako arauak jarraikiz kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoak egiaztatzen duten pertsona naturalezko edo juridikozkoak.

Era berean, enpresaburuak enpresa gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute, hala badagokio, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eskatzen bada.



DERIOKO UDALA

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioarekin bat ez badatoz. Horretarako, dagokion elkargo ofizialaren sozietate profesionalen erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Kasu horretan, enpresak kontratuari atxikitako arkitektoak pleguetako betekizun guztiak bete beharko ditu, eta bertan jasotako irizpideen arabera baloratuko dute.

SPKLTBko 54., 55. eta 59. artikuluei jarraituko zaie Europar Erkidegokoak ez diren enpresen, Erkidegokoak diren enpresen eta enpresaburuen elkarteen kasuan.

Aldi baterako enpresen elkarte baldin bada, enpresaburuek betebeharrak solidarioa izango dute, ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da, eta horrek kontratua iraungi bitartean, horretatik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko eskumen nahikoa izango du, enpresek zenbateko esanguratsuak kobratzeko eta ordaintzeko izan ditzaketen botere erkidetan eragin gabe.

Lizitazioaren ondoretarako, aldi baterako enpresa elkartean aurkeztu nahi duten enpresaburuek berau osatzen dutenen izenak eta egoeraren berri eman beharko dute, baita bakoitzaren partaidetzaren berri ere. Horrez gain, adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarte gisa eratuko diren konpromisoa hartzen dutela, kontratuaren esleipendun suertatuz gero.

Kontratu honen zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak egiten lagundu duten enpresek ezin izango dute lizitazio honetan parte hartu, izan euren kabuz edo aldi baterako enpresa elkarte baten bidez, betiere parte-hartze horrek lehiaketa askean parte hartzea eragotzi ahal badu edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko pribilegiozko tratua eragin ahal badu.

Espainiako pertsona juridikoa baldin bada, hala badagokio, eraketa edo aldaketa eskritura aurkeztu beharko da enpresek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko; eskritura Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da, baldin eta betekizun hori aplikatu beharreko merkataritza legeriaren arabera eskatu behar bada. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, aldaketa agiriaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren agiriaren bidez egiaztatuko da. Horietan, jarduera arautzeko arauak agertu behar dute eta horiek behar bezala erregistratuta egon behar dute dagokien sozietate profesionalen erregistro ofizialean.

Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrak izanez gero, jarduteko gaitasuna badutela frogatzeko, dagokien lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, enpresaren kokalekuko Estatuako legediak eskatzen duenaren arabera, edo, bestela, zinpeko aitorpena edo egiaztagiria aurkeztu beharko dute, arauz ezarri bezala eta aplikatzekoak diren Erkidegoko xedapen arabera.

Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde-esparruari dagokion Kontsuletzeko Bulegoaren txostena erakutsita.



DERIOKO UDALA

Sozietateko kide batek berau ordezkatzeko badu, agiriaren bidez justifikatu beharko du ordezkatzeko ahalmena duela.

Lizitaziora aurkeztu diren euren kabuz egin dezakete, edota botere nahikoa duen pertsona baimendu batek ordezkatu.

Europar Batasunekoak ez diren Estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita justifikatu dute, eta aurkeztu den dokumentazioari erantsiko zaio. Halaber, egiaztatu beharko da atzerriko enpresaren jatorriko Estatuak ere onartu egiten duela enpresa espainiarrek parte hartzea administrazioaren kontratazioan eta SPKLTBko 3. artikuluan zerrendatutako enprekin diren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateen kontratazioan, eta modu bertsuan egin dezaketela.

Nortasuna egiaztatzen duten ahalordeak proposamenarekin batera aurkeztuko dira, eta Udaltzako idazkariak edo jardunean den abokatu batek askiatsiko ditu lizitatuzailearen kontura.

Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresek kontratatuzeko gaitasuna izango dute, betiere hori xedatzen duen Estatu legeriaren arabera, gaitasuna baldin badute kontratuaren xedeari baitan dagoen prestazioa gauzatzeko.

III.2.- Kontratugilearen profila.

Kontratuaren esleipena kontratazio organoaren kontratugilearen profilean argitaratuko da, bai eta kontratu jardueraren inguruko beste edozein datu eta informazio ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratugilearen profilerako sarbidea Derioko Udalaren web orriaren bidez egingo da, eta hau da helbidea: <https://www.deriokoudala.net>.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

III.3. Dokumentazioa.- Lizitatuzaileek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, itxita eta euren edo euren ordezkariak sinatuta. Bertan, gainera, honako hauek adieraziko dira: izen soziala, helbidea, telefono-zenbakia, fax-zenbakia edo posta elektronikoa eta entitate edo lizitatuzailearen izena, eta kontratuaren xedeari izenburua. Hona hemen gutun-azalen edukia:

III.3.1. Administrazio dokumentazioa. A gutun-azala (1 zenbakikoa)

Gutun-azal horretan, III.2 atalean adierazitako datuez gain, izenburu hau ere agertuko da: "Administrazio dokumentazioa".

Agiri hauek sartu behar dira gutun-azalean, nahitaez:



DERIOKO UDALA

- Gainerako agiriekin **zerikusia ez duen orri bat**; bertan, gutun-azalaren edukiaren berri emango da, eta zerrenda bat erabiliko da, zenbakiekin.

- **Enpresaburuaren nortasun juridikoa eta gaitasuna egiaztatzen duten agiriak**, eta hala badagokio, proposamena izenpetzen duenaren ordezkariarena, SPKLTBko 72. artikuluan eta Erregelamendu Orokorreko 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako moduan.

Eskaintzailea pertsona fisikoa bada, bere nortasuna egiaztatzen duen agiria, legeztatutako kopien bidez (espainiarrek: Nortasun Agiri Nazionala edo horren pareko agiria; atzerritarrek: pasaporte, egoitza-baimena eta lan-baimena).

Eskaintzailea Espainiako pertsona juridikoa bada, sozietatea eratzeko eskritura edo estatutuen aldaketarena aurkeztu beharko du, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta (sozietate anonimoen kasuan, bat etorri beharko du, batetik, indarrean dagoen sozietate anonimoen Legearekin, hots, abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bateginarekin, eta bestetik, martxoaren 23ko 2/1995 Legearekin, Bigarren Xedapen Iragankorrean erantzukizun mugatuko sozietateen inguruan adierazitako moduan). Berau aurkeztu beharko du aplika daitekeen merkataritza legeriari jarraikiz exiji badaiteke. Pertsona juridikoa ez bada, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza erabiliko da jarduteko gaitasuna egiaztatzeko. Kasuan kasuko erregistro ofizialean izena emanda daukan jarduera erregulatzen duten arauak zehaztuko dira agiri honetan.

Proposamena izenpetzen duena lizitzailearen ordezkaria bada, ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen agiria ere aurkeztuko da (espainiarrek: NANA edo horren parekoa den agiria; atzerritarrek: pasaporte, egoitza-baimena eta lan-baimena). Horrez landa, botere nahikoa duela ere egiaztatuko da, kontratuan ordezkaturakoaren izenean agertzeko gaitasuna ematen diona. Udalbatzako idazkariak edo jardunean den abokatu batek askietsiko du ahalordea, lizitzailearen kontura.

Atzerriko enpresek aurkezten dituzten agiriak euren hizkuntzatik gaztelaniara modu ofizialean itzulita aurkeztuko dituzte.

Espainiako enpresaburu ez direnen kasuan, Europar Erkidegoko estatu kideetakoak izanez gero, jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute dagokion erregistroan inskribatuta ezarrita dauden Estatu legeriari jarraikiz; bestela, zinpeko aitortpena aurkez dezakete, edota HAKEko I. eranskinean adierazitako ziurtagiriak, aplikagarri diren Erkidegoko xedapenekin bat etorritik.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek txostena ekarri beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, Espainiak enpresaren kokalekuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren edo Kotsuletzeko Bulegoak emandakoa. Horretan adieraziko da tokiko erregistro profesional, komertzial edo antzeko batean inskribatuta daudela, edo horrelakorik ez, toki horretan kontratuaren xedarekin zerikusia duten ekintzetan jardun ohi dutela. Kontratatzeko eta kontratu horri lotzeko erabateko gaitasuna dutela egiaztatzeaz gain, Espainiak enpresaren kokalekuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren edo Kanpo Merkataritzarako Ekonomia Ministerioaren Merkataritza Idazkaritzaren txostenaren bidez justifikatuko da atzerriko enpresaren jatorriko



DERIOKO UDALA

Estatuak ere onartu egiten duela enpresa espainiarrek parte hartzea administrazioaren kontratazioan eta SPKLTBko 3. artikuluan zerrendatutako enprekin diren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateen kontratazioan, eta modu bertsuan egin dezaketela. Aurkezten den dokumentazioan erantsiko da txostena.

Arestian aipatutako agirien jatorrizkoak aurkeztuko dira halaberrez, edota fedemaile publiko batek behar bezala konpultsatutako kopiak.

- **Erantzukizun aitortzea**, herri administrazioarekin kontratatzeko debeku egoeretan ez dagoela egiaztatzen duena, SPKLTBren 60. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Erantzukizun aitortzen horretan berriaz adieraziko da enpresaburuak egunean dituela indarrean diren xedapenek (SPKLTBko 73. eta 146. artikulua) ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; nolahi ere, horrek ez du eragotziko enpresaburuak betekizun hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar izatea, esleipena bere alde egingo bada.

- **Lizitatuaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoko betekizunak justifikatzen duen dokumentazioa, honelaxe:**

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

Finantza entitateen aitortzen egokiak (pertsoneko juridikoak) edo, hala badagokio, arrisku profesionalengatik kalte-ordaina emateko aseguruak duela egiaztatzen duen agiria (pertsoneko fisikoak). Zenbatekoa 300.000,00 eurokoa litzateke, eta erantzun egin behar die tokiko entitateari edo hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteak, kontratu hau akatsekin exekutatzaren ondorioz eragiten direnak, alegia.

Kaudimen tekniko eta profesionala:

Azken BOST urteotan (2010. urtetik 2014. urtera) egindako lan edo emandako zerbitzu esanguratsuen zerrenda (2011tik 2013ra bitartean), zerbitzu edo lan horien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko zein pribatuak ere aipatuta. Hartzailea sektore publikoko erakundea baldin bada, egindako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira; hartzailea pribatua baldin bada, hartzaileak berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta ziurtagiririk ez badago, enpresaburuaren erantzukizun aitortzen baten bidez. Hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio organoari.

Aintzat hartuta arkitekto aholkulariak hirigintza antolamenduko agiriak aplikatu, berrikusi edo idatzi beharko dituela, zerrenda horretan, gutxienez, honako hau egiaztatuko da (beti 5.000 biztanletik gorako udalerrien inguruan):

- Gutxienez, egiturazko hirigintza antolamendurako tresna bat (1) idatzi izana (hiri antolamendurako plan orokorrak eta horien aldaketak eta/edo berrikuspenak).



DERIOKO UDALA

- Gutxienez, hirigintza antolamendu xehaturako tresna bat (1) idatzi izana (plan partzialak eta/edo plan bereziak).
- Gutxienez, hirigintza kudeaketarako tresna bat (1) idatzi izana (birpartzelatzeko proiektua, HJP).
- Gutxienez, ekipamendu publikoa, kirol ekipamendua eta/edo kultur ekipamendua eraikitzeko bi (2) proiektu idatzi izana, 200.000,00 eurotik gorako aurrekontuarekin.
- Gutxienez, gune publikoak urbanizatzeko obrei buruzko bi (2) proiektu idatzi izana, 200.000,00 eurotik gorako aurrekontuarekin.
- Udal hirigintzarako aholkularitza lanak egin izana azken hiru urteotan, modu jarraituan, eta gutxienez, astean zortzi orduko dedikazioarekin.
- **Lizitatzailerak izenpetutako zinpeko aitortpena**, bere ordezkariak duen ahalordea indarrean dagoela egiaztatzen duena.

III.3.2.- **B gutun-azala** (2 zenbakia).

Gutun-azal horretan **esleipen irizpideen inguruko dokumentazioa** sartuko da. Aurretiko ebaluazioa egingo da, baliozko judizioaren pean, eta eskema honi jarraituko zaio:

AURRETIKO EBALUAZIOAREN MENPEKO IRIZPIDEAK,

- UDALERRIAN INDARREAN DEN PLANGINTZA AZTERTZEA:..... 30 PUNTU.

Memorian udalerriko hirigintza plangintzaren azterketa jasoko da, baita aldaketak eta garatzeko onetsi diren agiriak ere. (A-4 formatuan, eta 40 orrialde, gehienez)

- PLEGUAN SARTUTA EZ DAUDEN HOBEKUNTZAK ETA ZERBITZUAK: BALDIN ETA KONTRATUAREN XEDEAREKIN ZERIKUSI ZUZENA BADUTE ETA ZERBITZUAREN KALITATEA HOBETZEN BADUTE NABARMEN.....15 PUNTU.

I.- Ahalmena zerbitzua iraunkorrean betetzeko kosturik gabe. Adierazi behar da ordu-pakete bat (gehien 40 ordu/urtez), kostu gehigarririk gabe bestelako Entitate Publikoekin bileretan parte hartzeagatik, bidaiak barne hartzen dira. 15 puntu

III.3.3.- **C gutun-azala** (3 zenbakia).

Gutun-azal horretan proposamen ekonomikoa sartuko da (pleguko ereduarekin bat etorri behar du), eta automatikoki kuantifika daitezkeen gainerako esleipen irizpideak. Orobat, aurkeztutako dokumentazioaren zerranda edo aurkibidea ere sartuko da.



DERIOKO UDALA

Ziurtagiriei, egiaztagiriei eta, oro har, agiri publikoei dagokienez, jatorrizkoak aurkeztuko dira, edota jatorriko administrazio organoek edo Udalbatzako Idazkaritza Nagusiak konpultsatutako kopiak edo fotokopiak.

ONDORENGO EBALUAZIOAREN MENPEKO IRIZPIDEAK

- TITULAZIOAK, PRESTAKUNTZA IKASTAROAK ETA ESPEZIALITATEAK:... 35 PUNTU.

- Arkitekto titulazioa, hirigintza espezialitatearekin: **20 puntu.**

- Organismo ofizialek hirigintzaren inguruan emandako prestakuntza ikastaroetara bertaratzea: **1 puntu** ikastaroko; gehienez ere **10 puntu.**

- Euskaraz mintzatu eta idaztea: gehienez **5 puntu 3. HE** agiri ofizialaren bidez egiaztatzeagatik.

- PREZIOA 20 PUNTU.

- PREZIOA 20 PUNTU.

Eskaintza ekonomiko baxuenak puntuazio handiena eskuratuko du, eta gainerakoek puntuazio proportzionala eskuratuko dute, onartutako muturreko balioen arteko interpolazio lineala eginda.

Edonola ere, "neurritz kanpokotzat" joko dira %15etik gorako beherapenak dakartenak, eta ondorioz, baztertu egingo dira (SPKLTBko 152. artikulua).

Pleguei jarraikiz, hona hemen puntuazioa bi zereginetan banatuta:

- Hirigintza arloko aholkularitza lana (A-tik D-ra bitarteko motak)10 puntu.
(% 15ko beherapena: 10 puntu - % 0ko beherapena: 0 puntu. Tarteko balioak interpolatu egingo dira)
- Beste lan batzuk (E mota) 10 puntu.
(% 15ko beherapena - 10 puntu. - % 0ko beherapena: 0 puntu. - Tarteko balioak interpolatu egingo dira)

Eskaintza ekonomikoa eredu honen arabera aurkeztuko da:

Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duen	jaunak/andreak,
PK eta	helbidea, NAN zk.,
telefono-zenbakia eta	helbide elektronikoa duenak, bere izenean (edo
PK, helbidea, telefono-zenbakia eta	NAN zk. edo IFK zk.
(pertsona fisikoa edo juridikoa den arabera) duen	-(r)en ordezkari



DERIOKO UDALA

gisa), ikusi du Derioko Udaleko udal arkitekto aholkulariaren zerbitzuen kontratuari dagokion lizitazioaren iragarkia.

Honako hau aitortzen dut:

1) Hitzematen dut berau exekutatuko dudala urtean€ko prezioan gehi BEZaren %....-(r)i dagokion€ Ulertu behar da prezioaren baitan aholkularitza lan guztien prezioak (A-tik D-ra bitarteko lan motak) eta kontzeptu guztiak sartuta daudela, edozein zerga esparrutako zergak, gastuak, tasak eta arbitrioak barne, bai eta kontratugilearen industria etekina ere.

E motako lanei dagokienez, % ... (e)ko jaitsiera ezarriko dut EHAEOaren erreferentziazko baremoen gainean.

Hori guztia honako laburpen koadro honen arabera:

atalak)	Preskripzio teknikoen pleguaren III. atalaren arabera: JAITSIERA: % ----(e)koa udal aholkularitzan (A-tik D-ra bitarteko JAITSIERA: % ----(e)koa beste proiektu batzuetan (E atala).
---------	--

2) Administrazio baldintza berezien plegua eta kontratu hau araupetu behar duen gainerako dokumentazioa ezagutzen dut, eta berriaz neure gain hartu, eta osotasunean onartzen ditut.

3) Ordezkatzen dudana enpresak indarrean dagoen legeriak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela, berau ireki, ezarri eta abian jarri ahal izateko.

.....(e)n, 2014koaren(e)(a)n
Sinadura.

Lizitatuak bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, lizitatuak ezin izango dute enpresen aldi baterako beste elkarte batzuekin inolako proposamenik sinatu, baldin eta bakarrik egin badute edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu badute. Arau horiek hautsitz gero, berak izenpetutako eskaera guztiak baztertuko dira.

Proposamen ekonomikoren batek aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin loturarik izango ez balu, eta lizitazioaren aurrekontua gaindituko balu edo ezarritako eredia funtsean aldatuko balu, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du.



DERIOKO UDALA

Era berean, konparaziozko zenbatekoak edo adierazpen anbiguoak ez dira ez egokitzat ez baliozkotzat joko, hau da, zuzenketa edo ohar gisa aurkezten direnak eta bere edukiaren gainean zentzuzko zalantzaren bat sor dezakeenean.

Eskaintza ekonomikoak gaztelaniaz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko du eta enpresaburuak edo horretarako eskumena duenak sinatu beharko du.

Proposamenak aurkezteak dakar enpresaburuak baldintzarik gabe onartzea Administrazio baldintza berezien pleguaren eta baldintza tekniko berezien pleguaren edukia.

IV.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA.

Proposamenak Derioko udaletxeko Erregistro Orokorrean (Herriko plaza 3, 09:00etatik 14:00etara) aurkeztuko dira **HAMABOST EGUN NATURAL**eko epean, prozedura ireki honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko dela ulertuko da.

Dokumentazioa Correosen bulegoetan ere aurkeztu ahal izango da arestian aipatutako epean. Kasu horretan, enpresaburuak Correosen bulegoan JUSTIFIKATU beharko du hori igortzeko ezarri den data eta kontratazio organoari telex **-FAX zk.: 94 4542832-** edo telegrama baten bidez IRAGARRIKO dio egun horretan bertan eskaintza hori igorri dela, lehiatuko den lizitazioa adierazita, baita izena edo, hala badagokio, enpresaren izen soziala ere. Bi baldintza horiek bete ezean, eta kontratazio organoak proposamena lizitazio iragarkian zehaztutako eguna eta ordua amaitu ondoren jasotzen badu, ez da eskaintza hori onartuko.

Edozein kasutan, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta 10 egun igaro ondoren proposamenik jaso ez bada, hori ez da inola ere onartuko.

V.- PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak udaletxeko batzorde aretoan irekiko dira, Kontratazio Mahaiaren aurrean. Mahai horren burua korporazioko alkate-udalburua edo hark eskuordetutako zinegotzia izango da. Bertako kideak, berriz, batzorde horretako kide iraunkorrak izango dira.

Ekitaldia proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo lehenengo osteguneko (egun naturala) bederatzia eta hogeita hamarreen hasiko da.

Kontratazio Mahaia alde aurretik eratuko da, aurkeztutako dokumentazioa garaiz eta behar bezala kalifikatzeko. Xede horietarako, mahaiburuak administrazio dokumentazioko **A gutun-azalak** (1 zk.) irekiko ditu, eta Mahaiko idazkariak ziurtatuko



DERIOKO UDALA

du gutun-azal bakoitzean agertzen diren dokumentuen zerrenda, baita eskatutakoari egokitzen zaiola ere.

Mahaiak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak edo hutsegiteak daudela, interesdunei jakinaraziko die, eta, horretarako, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango du, lizitatzailerik Kontratazio Mahaiaren aurrean zuzen edo konpon ditzaten akats edo hutsegite horiek. Adierazitakoan eragin gabe, zuzenketak kaltetutako lizitatzailerari eskatuko zaio faxaren, telefonoaren edo posta elektronikoaren bidez igortzeko, enpresaburuak adierazitako zenbakia erabilita eta berak esandako pertsonari. Aipatutakoa gauzatu ezin bada, baliorik gabeko saiakeratzat joko da.

Arestian adierazitako egunean eta orduan, Mahaia eratuko da, eta mahaiburuak adieraziko du aurkeztutako dokumentuen kalifikazioaren emaitza. Horrela, onartutako eta gaitzetsitako proposamenak adieraziko ditu, baita azken horiek onartu ez izanaren arrazoia edo arrazoiak ere.

Gaitzetsitako proposamenei dagokien eskaintzak kontratua esleitzeko prozeduratik kanpo geratuko dira, eta horiek jasotzen dituzten gutun-azalak ezin izango dira ireki.

B gutun-azala (2 zk.) ireki baino lehen, lizitatzailer interesdunak gonbidatuko dituzte zalantzak ager ditzaten edo beharrezkotzat jotzen dituzten azalpenak eska ditzaten. Horrela, Mahaiak dagozkion azalpenak eta erantzunak emango ditu, baina une horretan Mahaiak ezin izango ditu bere gain hartu eskaintzak onartzeko epean aurkeztu ez diren dokumentuak edota akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko edo konpontzeko dokumentuak.

Ekitaldi horretan, gutun-azalean jasotako dokumentuen zerrenda irakurriko da, eta horiek aztertzeko emango dira. Mahaiak, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen beste txosten tekniko (kontratuaren xedean zerrendatzen direnak) eskatu ahal izango ditu, kontratuaren xedearekin lotura badute. Era berean, Mahaiak lizitatzailerari eskatu ahal izango dio behar duen informazio osagarria.

Aurkeztutako proposamen bakoitza dagokion espedientean artxibatuko da, onartu direnak nahiz ireki gabe gaitzetsi direnak edo irekitakoan gaitzetsi direnak.

Dagozkion txostenak igorri ondoren, Kontratazio Mahaiak, arestian adierazitako lekuan, egunean eta orduan, **C gutun-azala** (3 zk.) irekiko du (automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak). Halaber, horren edukiaren berri emango du.

Ekitaldi berean, baliozko judizioaren menpeko irizpideei esleitutako haztapenaren emaitzaren berri emango da, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 30.3 artikulua ezartzen duen bezalaxe. Ondoren, aktarekin batera, esleipena egin behar duen kontratazio organoak egokitzen jotzen duen proposamena igorriko du, gehienez ere bi hilabeteko epean, proposamenak irekitzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.



DERIOKO UDALA

Kontratua esleitu ondoren eta errekursoak aurkezteko epea amaitu ondoren inork halakorik aurkeztu ez baldin badu, proposamenekin batera doazen agiriak interesdunen eskura geratuko dira, esleipendunarenak izan ezik.

Kontratazio organoak eskaintzarik merkeena aurkeztu duen lizitatzaileri eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, eskaera jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, jarraian adierazten den dokumentazioa aurkezteko:

- Eskumeneko erakundeak igorritako aldeko ziurtagiria, zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena edo horiek aurkezteko betebeharrak ez duela egiaztatzen duen erantzukizun aitortpena.

- Aldeko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzak igorritakoa, Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena edo horiek aurkezteko betebeharrak ez duela egiaztatzen duen erantzukizun aitortpena.

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman duela egiaztatzen duen agiria eta hori ordaindu duela egiaztatzen duena. Horretarako, azken ekitaldiko ordainketaren kopia aurkeztuko du, eta horrekin batera aipatu zergaren matrikulan baja eman ez duela egiaztatzen duen aitortpen erantzulea aurkeztuko du. Zerga horretatik salbuetsita badago, egoera hori justifikatzen duen adierazpena aurkeztuko du.

- SPKLTBren 64.2 artikuluekin bat, kontratatze gaitasuna egiaztatzen duten beste dokumentu batzuk, edo kontratuaren exekuzioari atxikiko zaizkiola hitz emandako baliabideak badituela egiaztatzen duen dokumentazioa, kontratazio organoak eskatzen diona.

Errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailiak bere eskaintza kendu duela, eta kasu horretan hurrengo lizitatzaileri eskatuko zaizkio agiri horiek, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera.

VI.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua administrazio dokumentu batean formalizatuko da, eta zehatz-mehatz bat etorriko da lizitazioaren baldintzekin, asko jota lizitatzailiek edo hautagaiek esleipenaren jakinarazpena jasotzen duten egunaren ondorengo hamabost eguneko epean. Dokumentu horrek edozein erregistro publikotara sartzeko titulu nahikoa sortuko du. Kontratugileak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan egitea, eta bere gain hartuko ditu dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu esleipenaren baldintzetan aldaketak eragin ditzaketan klausulak.

Nolanahi ere, kontratuari kontratazio arloan errekurso berezia jarri ahal bazaio, formalizazioa ezin izango da egin hamabost egun baliodun igaro arte, lizitatzaileri edo hautagaiei esleipena jakinarazten zaienetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarota, kontratazio organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko gehienez ere bost eguneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, aipatutako hamabost eguneko epea igaro ondoren, kontratuaren formalizazioa etetea



DERIOKO UDALA

dakarren errekurtsorik jarri ez bada edo gauzatzeko egintzaren etetea bertan behera uzten duen ebazpena ematen denetik aurrera.

Kontratuaren formalizazioa kontratazio organoaren kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua aipatu epearen baitan formalizatu ez badu, administrazioak erabaki ahal izango du zenbateko jakin baten behin betiko bermearen ganean konfiskatzea, eta hori gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren % 3koa izango da.

Kontratua sinatzearekin batera, esleipendunak Administrazio baldintza berezien plegua, Preskripzio tekniko berezien plegua eta kontratua osatzen duten gainerako dokumentuak sinatu beharko ditu.

VII.- KONTRATUA EXEKUTATZEA.

Kontratua kontratugilearen arrisku eta menturan exekutatu da.

Kontratua baldintzetan eta pleguetan xedatzen denaren arabera exekutatu da, eta kontratua interpretatzeko kontratazio organoak kasuan kasu kontratugileari emango dizkion jarraibideen arabera. Beharrezkoa balitz kontratu hori hasiera batean hitzartutakoa ez bezala exekutatzea, kontratua suntsiarazi beharko da, legez ezarritako baldintzei jarraikiz.

Kontratugilea izango da garatuko dituen lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, bai eta kontratua exekutatzean izandako hutsak, akatsak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

Kontratugileak ezin izango du ordeztu lanak egiteko atxiki diren langile fakultatiboak kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik izan gabe.

Kontratugileak isilean gordeko ditu kontratuaren xedearekin lotuta eskuratzen dituen datuak eta aurrekariak, horiek publikoak edo jakinak ez direnean, kontratua egitean jakiten dituenak.

VIII.- KONTRATUGILEAK DITUEN LAN, GIZARTE ETA EKONOMIA ARLOKO BETEBEHARRAK.

Lanei atxikitako langileak kontratugilearen esku baino ez dira egongo, eta horrek, horiekin lotuta, enpresaburu den heinean eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu.

Oro har, kontratugileak enplegatzaile gisa ezarrita dituen betebeharrak guztiak erantzungo die, eta lan harremana edo haren edo berak azpikontratututakoen zein langileek banan-banan dituzten beste edozein motatako harremana garatu eta arautzen duten



DERIOKO UDALA

arauak bete beharko ditu. Hala, administrazioak ezin izango du jaso eskumeneko erakundeek ezar diezaioketen inolako isun, zehapen edo erantzukizunik.

Edozein kasutan, kontratugileak administrazioari kalte-ordaina emango dio, zehazki, plegu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzearen ondorioz ordaindu behar duen zenbateko guztiari dagokiona, nahiz eta hori ebazpen judizialean edo administrazio ebazpenean ezarrita izan, bai eta zerbitzua gauzatzeko behar diren lanen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalteei dagokienak ere, kalte horiek administrazioak emandako berehalako eta zuzeneko agindu baten bidez eragin direnean izan ezik.

IX.- EGINDAKO LANEN JABETZA.

Derioko Udalaren jabetzakoak izango dira bai jasotako zerbitzua baita egindako lanetatik eratorritako eskubideak edota horien industria eta merkataritza jabetza ere, eta administrazioak izango du horiek erabiltzeko eskubidea.

Ulertuko da jabetza intelektualaren xede diren lanak berariaz eta beren beregi administrazio kontratatzaileari laga zaizkiola, aldeaz aurretik zeuden eskubideen kasuan izan ezik; izan ere, horietan baliteke lagapena eskusiboa ez izatea.

X.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua interes publikoko arrazoiengatik baino ezingo da aldatu, eta SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta bertan adierazitako moduan.

Kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratugilearentzat, eta SPKLTBren 156. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik formalizatuko dira. Horrela, kontratuaren xedea kendu edo zati batean murrizten bada, ez du inolako eskubiderik izango arrazoi horiengatik kalte-ordainak eskatzeko.

Aldaketa edo luzapena dela-eta kontratuaren iraupenean sor daitezkeen igoerak pilatzean, ezin izango dute kontratuaren gehienezko iraupen epea gainditu, luzapenak barne, araudian aurreikusitakoari jarraikiz.

XI. KONTRATUA SUNTSITZEA.

Kontratua suntsitu egingo da berau betetzen denean edota deuseztatzen delako.

Edozein kasutan, kontratua suntsitzean, ezin izango dira finkatu kontratazio organoko langile gisa kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak sendotu.

XI.1.- Kontratua suntsitzen da kontratugileak zerbitzu osoa bete duelako, bertan ezarritako baldintzekin bat etorritik.



DERIOKO UDALA

XI.2.- Kontratua suntsitzeko arrazoiak dira SPKLTBren 223 eta 308 artikuluetan aurreikusitakoak, horietan ezartzen diren eskubideak barne.

Era berean, kontratua kasu hauetan deuseztatuko da ondorio guztietarako, kontratugilearen erruz:

- a) Plegu honetan ezarritako isilean gordetzeko betebeharra ez betetzea.
- b) Kontratugileak kontratuaren xede den zerbitzua uztea.

Zerbitzua utzi dela ulertuko da zerbitzu hori behar bezalako erregularitasunez ematen ez bada edota hitzartutako epean kontratua behar bezala exekutatzeke beharrezko giza baliabideekin edo baliabide materialekin ematen ez bada. Dena den, hori gertatzen denean, administrazioak, kontratua deuseztatutzat jo baino lehen, kontratugileari eskatuko dio egoera hori erregularizatzeko. Horretarako, bost eguneko epea izango du, eskakizuna jasotzen duenetik aurrera zenbatzen hasita.

c) Kontratugilea tartean sartzea, kontratua indarrean dagoen bitartean, indarrean dagoen araudian adierazitako kontratatzeke debekuetakoren batean edo bateraezintasunen batean, kasuan kasuko bateraezintasuna berehala lortu beharrik gabe.

d) Kontratuaren subrogazioa SPKLTBren 85. artikuluan ezarritako baldintzetan egin ezin bada, kontratuaren esleipena duen erakundeak ez dituelako betetzen beharrezko kaudimen baldintzak.

Aipatutako kausa horietakoren bat gertatzeak, ezarritako baldintzetan, kontratua deuseztatzea ekarriko du, eta kontratugileak administrazioari horrek ekarritako kalte eta galerei dagozkien kalte-ordainak emango dizkio, ezar daitekeen araudiarekin bat etorritik bidezkoak diren gainerako ondorioak barne. Bermearen zenbatekoak horri guztiari erantzungo dio, irismenari dagokionez, eta kontratugileak erantzukizuna izaten jarraitzean eragin gabe bahitutako bermean gainditutako zenbatekoari dagokionez, hala badagokio.

XII.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Kontratazio organoak administrazio kontratuak interpretatzeko eta berau betetzeko sor daitezkeen zalantzak ebazteko eskumena du. Era berean, egindako kontratuak aldatu eta horiek deuseztatu ahal izango ditu, ezarritako muga baitan, SPKLTBn adierazitako baldintza eta ondorioei jarraikiz eta aplikatzekoa den gainerako araudiarekin bat etorritik.

Kontratazio organoak agintzen dituen erabakiak, aldeztatik eskumeneko organoek txosten juridikoa eginda eta kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta deuseztatzeke eskumenak baliatuz, berehala beteko dira.



DERIOKO UDALA

XIII.- ESKUMENENKO JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK.

Administrazio kontratuak interpretatzean, aldatzean, deuseztatzean eta ondorioak eragitean sortutako alderdi eztabaidagarriak eskumeneko kontratazio organoak ebatziko ditu. Horrek hartutako erabakiak administrazio bidea agortuko dute, eta horien aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, organo berberaren aurrean, edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa bi hilabeteko epean, berau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Derion, 2014ko irailaren 16an.